

11. AKTA

Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordea

Batzar mota: Ohikoa

Eguna: 2024-05-20

Ordua: 9:02

Tokia: Loretope Aretoa

Batzordeburua: Cristina Lagé Manich

Etorritakoak:

Batzordeko kide diren zinegotziak:

Jon Insausti Maisterrena

Maria Jesus Idoeta Madariaga

Martín Ibabe Eceiza

Juan Ramón Viles Mitxelena

Markel Ormazabal Gaztañaga (9:03an bileran sartu da)

Izar Hernando Ibero Iñaki

Gabarain Gaztelumendi (9:08an bileran sartzen da)

Vanessa Vélez de Pablos (9:10ean bileran sartu da)

Arantza González García

Beste zinegotzi batzuk:

Ana López Loiarte (9:08an bileratik atera da)

Eneko Goia Laso alkate jauna (9:15ean bileran sartzen da eta 9:23an atera da).

Idazkaria: Ane Miren Irizar González, Idazkariak eskuordeturik.

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin diote:

ACTA N.º 11

Comisión de Servicios a las Personas

Sesión: Ordinaria

Día: 20-05-2024

Hora: 9:02

Lugar: Sala Loretope

Preside: Cristina Lagé Manich

Asistentes:

Concejales y concejales miembros de la Comisión:

Jon Insausti Maisterrena

Maria Jesús Idoeta Madariaga

Martín Ibabe Eceiza

Juan Ramón Viles Mitxelena

Markel Ormazabal Gaztañaga (se incorpora a las 9:03h)

Izar Hernando Ibero

Iñaki Gabarain Gaztelumendi (se incorpora a las 9:08h)

Vanessa Vélez de Pablos (se incorpora a las 9:10h)

Arantza González García

Otros/as concejales/as :

Ana López Loiarte (se retira a las 9:08h)

El Alcalde, Eneko Goia Laso (se incorpora a las 9:15 h y se retira a las 9:23h).

Secretaria: Ane Miren Irizar González, por delegación de la Secretaria General.

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:



1.- 2024ko apirilaren 15en izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat jotz gero.

Bozketa egin eta aho batez onartu da 10. akta, 2024ko apirilaren 15ean egindako bilerari dagokiona.

2.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, herritarren gogobetetasunari buruzko inkesta dela eta.

Arantza González andreak hurrengo interpelazioa irakurritzat eman du:

“Arantza González García, Elkarrekin Donostia udal-talde mistoko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua babesean, herritarren gogobetetzeari buruzko inkestaren inguruko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Gizarte Zerbitzuetako, Ekintza Komunitarioko eta Auzoetako zinegotzi ordezkari Idoeta andereari, PERTSONENTZAKO ZERBITZU BATZORDEAN tratatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Udalaren webguneak herritarren gogobetetzeari buruzko inkesta bat dauka aktibatuta, baina ez du batere ongi funtzionatzen, ez baitu inolako identitate- edo erroldatze-kontrolik txertatuta. Era berean, ez du kontrolatzen pertsona bakoitzak behin bakarrik erantzun ahal izatea.

Azken batean, pertsonak hirian erroldatuta dauden ala ez identifikatzeko kontrolik ez badago, eta nahi adina aldiz erantzun badaiteke, inkesta horrek ematen dituen emaitzak zalantzarazkoak izango dira, zehazki herritarrek Udalaren jarduketarekiko duten gogobetetze-maila zein den jakiteko orduan.

Hori dela eta, hauxe da gure:

INTERPELAZIOA

1. Udalaren webgunean gogobetetze aktiboari buruzko inkestak zergatik ez du inolako kontrolik ezartzen erantzuten dutenen pertsonen erroldatzearen inguruan? Zenbat aldiz erantzun daiteke inkesta hori?
2. Kontrol espezifikoaren bat txertatuko al duzue inkestaren emaitzen sinesgarritasuna bermatzeko?

1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 15 de abril de 2024.

Se aprueba por unanimidad el acta número 10, correspondiente a la sesión celebrada el día 15 de abril de 2024.

2.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a la encuesta de satisfacción ciudadana.

La Sra. González García da por leída la siguiente interpelación:

“Arantza González García, Concejala del grupo municipal mixto Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN, a la concejala delegada de Servicios Sociales, Acción Comunitaria y Barrios, Sra. Idoeta, para su tratamiento en la COMISIÓN DE SERVICIOS A LAS PERSONAS, relativa a la encuesta de satisfacción ciudadana.

JUSTIFICACIÓN

La web municipal tiene activada una encuesta de satisfacción ciudadana que deja bastante que desear, ya que no tiene ningún control de identidad o empadronamiento. Asimismo, tampoco tiene un control para que sólo se pueda contestar una vez por persona.

En definitiva, que si no existe un control para identificar si las personas están o no empadronadas en la ciudad, y se puede contestar tantas veces como se quiera, los resultados que arroje esta encuesta serán más que dudoso para conocer exactamente cuál es el nivel de satisfacción de la ciudadanía con la actuación del Ayuntamiento.

Es por ello, que realizamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué motivo razón la encuesta de satisfacción activa en la web municipal no tiene ningún control sobre el empadronamiento de quienes respondan y se puede responder tantas veces como se quiera?
2. ¿Va a introducir algún control específico para garantizar la credibilidad de los resultados de la encuesta?
3. ¿Se ha subcontratado esta encuesta? En



3. Inkesta hori azpikontratatu egin al da?
Erantzuna baiezkoa bada, zenbat kostatu
da eta nork diseinatu du?

Donostian, 2024ko maiatzaren 10ean

Arantza González García
Elkarrekin Donostia Udaleko talde mistoko
zinegotzia.”

Arantza González eta Ana López andreek hitz egin
dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu
dira.

(9:03an Jon Markel jauna bileran sartu da)

**3.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua,
gatazken gestiorako eta elkarrizketarako auzo-
mahaiak sortzea dela eta.**

Izar Hernando andreak hurrengo interpelazioa
irakurritzat eman du:

“Izar Hernando Iberok, EH BILDU udal taldeko
zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren
134. artikulua ematen dion aukera baliatuz, hiriko
hainbat gunetan gatazken gestiorako eta
elkarrizketarako auzo-mahaiak sortzearen inguruko
interpelazioa egiten dio Eneko Goia alkateari, hari
buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen
Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Gero eta gehiago, hiriko gunea askotan, ahoz-ahoz
dabilen gaia da segurtasunarena. Edozein kasutan,
auzotarren kezka du oinarrian gai hau aireratzeak,
elkarbizitzan sortu izan diren gatazken aurrean.
Ordea, jakin badakigu “segurtasun faltaren” gaia
ertz ugari gaia dela eta, diskurtso eta sentipen
horiek argudio gisa erabiliz, egoera zaurgarrian
dauden pertsonak jopuntuan jartzeko arriskua
dagoela.

Egoera horren aurrean, instituzioak esku-hartze
desberdinak izan beharko lituzke (eta baditu) abian,
gizarte zerbitzuak erdigunean jarriz, eta ikuspegi
poliziala ere presente edukita, horren beharra
dagoenean. Ordea, esku-hartze horiez gain,
Udalak eztabaida soziala lideratzeko eta gako
egokietan kokatzeko ardura izan behar du, eta
horretarako ekimenak martxan jarri. Izan ere,
aipagai dugun gaia modu arduratsuan landu ezean,

caso afirmativo, ¿cuánto ha costado y quién
la ha diseñado?

En San Sebastián, a 10 de mayo de 2024

Arantza González García
Concejala del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia”.

Intervienen las Sras. González García y López
Loiarte, en los términos que resultan de la
grabación de la sesión incorporada al Diario de
Sesiones.

(El Sr. Ormazabal Gaztañaga se incorpora a la
sesión a las 9:03h)

**3.- Interpelación, presentada por el Grupo EH
BILDU, sobre la creación de mesas vecinales
para la gestión y el diálogo de conflictos.**

La Sra. Hernando Ibero da por leída la siguiente
interpelación:

“Dña. Izar Hernando Ibero, concejala del grupo
municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134
del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la
siguiente interpelación al alcalde, D. Eneko Goia,
sobre la creación de mesas vecinales de diálogo y
gestión de conflictos en diferentes zonas de la
ciudad, para que dé explicaciones al respecto en
la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

El tema de la seguridad es algo que corre de boca
en boca, cada vez más, en muchas zonas de la
ciudad. En cualquier caso, sacamos a colación
este tema por la preocupación de los vecinos y
vecinas ante los conflictos de convivencia que
están surgiendo. Sin embargo, somos conscientes
de que el tema de la "inseguridad" presenta
muchos flecos y de que, si se utilizan estos
discursos y sensaciones como argumento, se
corre el riesgo de que personas en situación
vulnerable sean puestas en el punto de mira.

Ante esta situación, las instituciones deberían
tener (y tienen) en marcha diferentes
intervenciones, centradas en los servicios sociales,
y teniendo también presente la perspectiva policial,
cuando sea necesario. Sin embargo, además de
realizar estas intervenciones, el Ayuntamiento
debe ser el responsable de liderar el debate social
y de situarlo en las claves adecuadas, así como de
poner en marcha las iniciativas precisas para ello.



zaugarriak diren kolektiboak (are gehiago) kriminalizatu eta bazterkeriara kondenatzeko aukera handia dago, arrazismoz blai dauden iritziak sortuz eta zabalduz.

Urte hasieran Pertsonen Batzordean eskatu genuen lehenago Egian abiarazitako esperientziari jarraipena emateko, auzoko eragileen artean elkar-ulertzeko prozesuan sakonduz. Oraingoan, gatazka-foku gisa hiriko beste gune batzuk ere identifikatuta daudenez gero, gisako auzo-mahaiak gune horietara zabaldu beharko liratekeela uste dugu; Martutene eta Herreran ere sortu den alarma egoera bideratzeko beharra dago, auzoko kolektiboak eta sentsibilitate desberdinak elkartuz, auzoko bizitza indartzeko eta auzoko dinamikak integratzaileago egiteko eman beharreko hausnarketak emanez.

Izan ere, lehen esan bezala, aipaturiko pertzepzio edo gatazkei modu eraikitzailean begiratu eta ikuspegi integratzailez aurre egiteak Udalaren ardura behar duela uste dugu.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak urrats berririk egin Egian abiatu zen auzoko mahaiari?
- Zer dela eta ez da auzoko mahaiaren eredu hiriko beste gune batzuetara zabaldu, Herrera edo Martutenera kasu?

Donostian, 2024ko maiatzaren 10ean

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Izar Hernando eta María Jesús Idoeta andreek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

(9:08an Ana López andrea aterata eta Iñaki Gabarain jauna bileran sartu da).

(9:10ean Vanessa Vélez andrea bertaratu da).

4.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, eskolen eraikinen mantenuari buruzkoa.

De hecho, si este asunto no se trata de una manera responsable, existe un gran riesgo de que se criminalice y se condene (aún más) a colectivos vulnerables a la exclusión, generando y difundiendo opiniones racistas.

A principios de año, solicitamos en la Comisión de Servicios a las Personas la continuación de la experiencia iniciada anteriormente en Egia, para que se profundizara en el proceso de entendimiento entre los agentes del barrio. En esta ocasión, al estar también identificados como focos de conflicto otros espacios de la ciudad, creemos que las mesas vecinales deberían extenderse también a dichas zonas. Es preciso encauzar la situación de alarma que se ha generado en Martutene y Herrera, reuniendo a los diferentes colectivos y sensibilidades del barrio, realizando las reflexiones que resulten necesarias para reforzar la vida del barrio y hacer más integradoras las dinámicas del barrio.

De hecho, como se ha señalado anteriormente, consideramos que es responsabilidad del Ayuntamiento tratar de manera constructiva las percepciones o conflictos mencionados y hacerles frente con una visión integradora.

Por ello, la concejala abajo firmante, realiza la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Por qué el Gobierno municipal no ha dado nuevos pasos en la mesa vecinal que se puso en marcha en Egia?
- ¿Por qué no se ha extendido el modelo de mesa vecinal a otras zonas de la ciudad, como Herrera o Martutene?

San Sebastián, 10 de mayo de 2024

Izar Hernando Ibero
Concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Intervienen las Sras. Hernando Ibero e Idoeta Madariaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

(A las 9:08h se retira la Sra. López Loiarte y se incorpora el Sr. Gabarain Gaztelumendi).

(A las 9:10h se incorpora la Sra. Vélez de Pablos).

4.- Interpelación, presentada por el grupo EH BILDU, sobre el mantenimiento de los



Izar Hernando andreak hurrengo interpelazioa irakurritzat eman du:

“Izar Hernando Ibero, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua ematen dion aukera baliatuz, eskolen mantenuan egin beharreko inbertsioari buruzko interpelazioa egiten dio Cristina Lagé Hezkuntza delegatuari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalarena da Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola publikoen eraikinen eskumena. Donostiako eskola askoren eraikinak zaharrak dira (asko, 50 urtetik gorakoak), eta egoera ere halakoa da, nagusiki, eskola publikoen kasuan. Eskola publikoak kexu dira inbertsioak tantaka iristen direlako, azpiegiturekin lotutako arazoak bata bestearen atzetik sortzen diren bitartean (eraikinak zahartzen joan ahala are eta gehiago).

Eskoletako zuzendaritzek egiten duten hausnarketak eskatzen digu eskolen azpiegiturari mantenuaren ikuspegiak haratago begiratzeko; hezkuntzak eskatzen duen estrategikotasun eta planifikazioaz, alegia. Patioen eraldaketak, estalketak, azpiegituren berritzea, mantenua... guztiak behar du hezkuntzatik begiratu izan, eta behar anitzak kontuan hartuko dituen plangintza bat osatu. Egun ez baitugu horrelakorik, eta beharrak oso pixkanaka asetzen dira, alde zehaztutako irizpide edo lehentasunik gabe.

Hain zuzen ere, hezkuntzatik pentsatua izango den plana behar dugu, lehentasunez egin beharreko konponketak, estrategikoak diren (eta hain urgentziazkoak ez diren) bestelako interbentzioen kronograma, eta bestelako mantenu-esku hartzeak egiteko irizpideak jasoko dituen.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta ez du Donostiako Udal Gobernuak eskolen eraikinen mantenuari begirako plangintzarik egiten, lehentasunak, irizpideak eta kronogramak zehaztuz?

Donostian, 2024ko maiatzaren 10ean

edificios escolares.

La Sra. Hernando Ibero da por leída la siguiente interpelación:

“Izar Hernando Ibero, concejala del Grupo Municipal EH BILDU, de acuerdo con lo establecido en el artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente interpelación, relativa al mantenimiento de edificios escolares, a Cristina Lagé, concejala delegada de Educación, para su respuesta en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

La competencia de los edificios de las escuelas públicas de Educación Infantil y Primaria corresponde al Ayuntamiento de San Sebastián. Muchos de los edificios de los centros escolares de San Sebastián son antiguos (muchos superan los 50 años), situación que se repite también en el caso de las escuelas públicas. Los centros públicos se quejan de que las inversiones llegan a cuantagotas, mientras que los problemas relacionados con las infraestructuras se van multiplicando (a mayor ritmo cuanto más envejecen los edificios).

La reflexión de las direcciones de los centros escolares nos exige abordar este tipo de infraestructuras más allá de la visión de mantenimiento, es decir, desde una visión estratégica y de planificación, que es precisamente lo que demanda educación. La transformación de patios, su cubrimiento, la renovación de infraestructuras, el mantenimiento... todo requiere una visión educativa y una planificación que tenga en cuenta las diferentes necesidades. Porque, a día de hoy, no contamos con una visión de este tipo, y las necesidades se van cubriendo poco a poco, sin criterios o prioridades predeterminados.

Necesitamos un plan desde una visión educativa, de forma que determine reparaciones prioritarias, un cronograma con otras intervenciones de carácter estratégico (y menos urgente) y criterios para realizar otras intervenciones de mantenimiento.

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Por qué motivo el Gobierno Municipal de San Sebastián no planifica el mantenimiento de edificios escolares, concretando prioridades, criterios y cronogramas?

San Sebastián, 10 de mayo de 2024



Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Izar Hernando eta Cristina Lagé andreek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

(9:15ean Eneko Goia Alkatea bileran sartu da).

Interpelazioa, EH BILDU taledak aurkeztua, Maiatzaren 5ean jazotako eraso matxistaren aurrean protokoloa ez aktibatzearen harira.

Izar Hernando andreak hurrengo interpelazioa irakurritzat eman du:

“Izar Hernando Iberok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua ematen dion aukera baliatuz, maiatzaren 5ean jazotako eraso matxistaren aurrean protokoloa ez aktibatzearen inguruko interpelazioa egiten dio Eneko Goia alkateari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Maiatzaren 5ean, igandean, eraso matxista bat jazo zen hirian, Altzan. Astelehenean egin zen publiko prentsaren bidez, Donostiako Indarkeria matxistaren aurkako Protokoloak aurreikusitako suposatuetako bat definituz. Izan ere, protokoloa aktibatzeko hiru kasuak ondorengoak dira: hilketa, eraso matxista eta eraso matxista jaietan. Oraingoan, eraso matxistaz ari gara.

Ezaugarriak betetzen zirela, eta protokoloa aktibatu ez zela jakinda, EH Bildutik Bozeramaileen Batzordeak bilera egitea eskatu genuen, urgentziaz, protokoloa aktibatu behar zela iritzita. Bozeramaileen Batzordean jakin genuen, gainera, Udaleko teknikari baten gomendioa protokoloa aktibatzea zela. Ez dugu ulertzen, beraz, protokoloa aktibatzeko suposatuen barruan sartzen den gertakari horren aurrean protokoloa ez aktibatu izana. Are, ez dugu nahi fokua protokoloaren hanka “publikoan” soilik jarri, hori nola egin erabakitzea Bozeramaileen Batzordeari baitagokio; baina uste dugu ezin dugula protokoloaren hanka “pribatua”, eraso jasan duen pertsonarekin (edo haren inguruarekin) harremanetan jartzen saiatu eta Udaleko bitartekoak eskaintzea, alde batera utzi. Ez behintzat, Udal Gobernuak bat egiten badu protokoloak bere egiten dituen oinarri eta helburuekin.

Izar Hernando Ibero
Concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Intervienen las Sras. Hernando Ibero y Lagé Manich, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

(El Sr. Alcalde Goia Laso se incorpora a la sesión a las 9:15h).

5.- Interpelación, presentada por EH BILDU, sobre la no activación del protocolo ante la agresión machista ocurrida el 5 de mayo.

La Sra. Hernando Ibero da por leída la siguiente interpelación:

“Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente interpelación al alcalde, Eneko Goia, sobre la no activación del protocolo tras la agresión machista ocurrida el 5 de mayo, para que dé explicaciones al respecto en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

El domingo 5 de mayo se produjo una agresión machista en la ciudad, en Altza. Este hecho se hizo público el lunes, a través de la prensa, y se definió como uno de los supuestos previstos en el protocolo contra la violencia machista de San Sebastián. De hecho, los tres casos para la activación del protocolo son el asesinato, la agresión machista y la agresión machista en fiestas. En esta ocasión, se trata de una agresión machista.

Sabiendo que a pesar de que se cumplían las condiciones para ello no se había activado el protocolo, desde EH Bildu solicitamos que se convocara a la Junta de Portavoces, ya que considerábamos urgente la activación del protocolo. En la Junta de Portavoces tuvimos conocimiento de que la recomendación del personal técnico del Ayuntamiento era activar el protocolo. No entendemos, por tanto, que este no se haya activado ante un incidente que entra dentro de los supuestos de activación. De hecho, no queremos poner el foco únicamente en el aspecto "público" del protocolo, ya que la decisión sobre cómo hacerlo corresponde a la Junta de Portavoces, sino que entendemos que no podemos obviar el aspecto "privado", el de intentar contactar con la persona agredida (o su entorno) y ofrecerle los medios de que dispone el Ayuntamiento. Si es que realmente el Gobierno



Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta maiatzaren 5ean Donostian jazotako eta astelehenean publiko egindako eraso matxistaren harira ez zen indarkeria matxistaren protokoloa aktibatu?
- Zer dela eta ez zitzaion Udaleko teknikariaren irizpideari jarraitu?
- Zein da Udal Gobernuaren konpromisoa indarkeria matxistaren protokoloarekiko?

Donostian, 2024ko maiatzaren 10ean

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Izar Hernando andreak eta Eneko Goia Alkate jaunak hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

(9:23an Eneko Goia Alkatea atera da)

Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostiako udala Aste Nagusiko zezenketa onenaren saritik deslotu izanari buruzkoa

Markel Ormazabal jaunak hurrengo interpelazioa irakurritzat eman du:

“Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua ematen dion aukera baliatuz, INTERPELAZIO hau egiten dio Donostiako alkate Eneko Goia Lasori Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean erantzun dezan.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den maiatzaren 6an, Espainiako Kultura Ministerioak iragarri zuen Tauromakiako Sari Nazionala emateari utziko diotela. Berria jakin ondoren, Donostiako Udalarri gauza bera egiteko eskatu zion Eguzki talde ekologistak, Illunbeko zezenketetan egindako “faena” onenari Urrezko Maskorra ematen baitio udalak. Gutxienez orain arte horrela izan da.

municipal hace suyas las bases y los objetivos que se recogen en el protocolo.

Por ello, la concejala abajo firmante realiza la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Por qué no se activó el protocolo de violencia machista tras agresión machista ocurrida el 5 de mayo en San Sebastián y que se hizo pública el lunes?
- ¿Por qué no se siguió el criterio del personal técnico municipal?
- ¿Cuál es el compromiso del Gobierno municipal con el protocolo de violencia machista?

San Sebastián, 10 de mayo de 2024

Izar Hernando Ibero
Concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Intervienen a Sra. Hernando Ibero y el Sr. Alcalde Goia Laso, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

(El Sr. Alcalde Goia Laso se retira a las 9:23h)

6.- Interpelación, presentada por el grupo EH BILDU, sobre la desvinculación del ayuntamiento de Donostia del premio a la mejor corrida de toros de la Semana Grande.

El Sr. Ormazabal Gaztañaga da por leída la siguiente interpelación:

“Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al alcalde, Eneko Goia Laso, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

El pasado 6 de mayo, el Ministerio de Cultura de España anunció la eliminación del Premio Nacional de Tauromaquia. Conocida la noticia, el grupo ecologista Eguzki instó al Ayuntamiento de San Sebastián a hacer lo mismo, ya que entrega la concha de oro a la mejor faena taurina de Semana Grande en Illunbe, o así ha sido hasta el momento.



Udal Gobernuak maiatzaren 7an Donostiatik hedabideari egindako adierazpenetan adierazi zuen, iaz Donostiako Udala Aste Nagusiko zezenketa lan onenaren saria ematek deslotu zela, eta ez zuela parte hartu sari horren banaketan. Eta honakoa gehitu zuen: “Saria Donostia Turismoak ematen zuen, eta legegintzaldia aldatzarekin batera Udal Gobernuak erretiratu egin zen”.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako **INTERPELAZIO** hau egiten du:

- Zer dela eta hartu du erabakia Udal Gobernuak? Zein legegintzaldi aldatetari buruz ari da Udal Gobernuak? Asmorik ba al du Udal Gobernuak Aste Nagusiko zezenketak modu batera edo bestera babesteko?

Donostian, 2024ko maiatzaren 10ean

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Markel Ormazabal eta Jon Insausti jaunek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

7.- Galdera, EH BILDU taldeak aurkeztua, 21-24 Gazteria Plana eta 21-24 Berdintasun Planaren azken balorazioei eta hurrengo planen diseinuei buruzkoa.

Izar Hernando andreak hurrengo galdera irakurritzat eman du:

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Izar Hernando Iberok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 135. artikulua oinarri, 21-24 Gazteria Plana eta 21-24 Berdintasun Planaren azken balorazioei eta hurrengo planen diseinuei buruzko galdera egiten dio Cristina Lage zinegotziari, hari buruzko azalpenak ahoz eman ditzan Pertsonen Batzordean.

JUSTIFIKAZIOA

Aurten egingo dute azken urtea Gazteria Planak eta Berdintasun Planak. Horregatik, balorazioa osatzeko eta hurrengo planak diseinatzekeo hila beteak (izango) dira hauek. Plan hauek duten garrantzia eta irismen politikoa handia dela uste dugulako, hiriko gazte eragileek (Gazte Planaren kasuan) eta eragile feministek edota emakumeen

En sus declaraciones al medio Donostitik el pasado 7 de mayo, el Gobierno Municipal manifestó que el año pasado ya se había desvinculado de la concesión del premio a la mejor faena taurina de Semana Grande y que no participó en su entrega. Y añadió: «Este premio lo daba Donostia Turismo y con el cambio de legislatura se retiró».

Es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente **INTERPELACIÓN**:

- El Gobierno Municipal ¿por qué motivo ha tomado esta decisión? ¿A qué cambio de legislatura se refiere el Gobierno Municipal? ¿Tiene intención el Gobierno Municipal de apoyar de una u otra manera las corridas de toros de Semana Grande?

San Sebastián, 10 de mayo de 2024

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
Concejal del grupo municipal EH Bildu”.

Intervienen los Sres. Markel Ormazabal y Jon Insausti, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

7.- Pregunta, presentada por el grupo EH BILDU, relativa a las valoraciones finales del Plan de Juventud 21-24 y del Plan de Igualdad 21-24 y los diseños de los próximos planes.

La Sra. Hernando Ibero da por leída la siguiente pregunta:

“Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, formula la siguiente pregunta a la concejala, Cristina Lage, sobre las valoraciones finales del Plan de Juventud 2021-24 y del Plan de Igualdad 2021-24, así como sobre los diseños de los próximos planes, para que dé explicaciones orales en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

Este es el último año de los planes de Juventud y de Igualdad actualmente vigentes. Por ello, estos (próximos) meses se realizará la valoración correspondiente, así como el diseño de los planes para los próximos años. En nuestra opinión, estos planes tienen una extraordinaria importancia y un gran alcance político, y, por ello, consideramos



gailen aritzen diren eragileek (Berdintasun Planaren kasuan) zein Udalean parte hartzen dugun talde politikook ere balorazio ariketan, eta bereziki, hurrengo planen diseinuan parte hartzea positiboa litzakeela deritzogu.

Hori horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako galdera hauek egiten ditu:

- Zein epe eta urrats diseinatu dira Gazteria Planaren eta Berdintasun Planaren balorazioa osatzeko? Nork parte hartuko du balorazioaren osaketan? Zein espaziotan konpartituko da planen balorazioa?
- Zein epe eta urrats aurreikusi dira hurrengo Gazteria Planaren eta Berdintasun Planaren diseinurako? Kanpo-eragileren batek dinamizatuko ditu prozesu horiek? Baiezko kasuan, zein eragileek? Hiriko eragileek ekarpena egiteko zein foro irekiko da? Udalean parte hartzen dugun talde politikook zein aukera izango dugu diseinu-prozesuan parte hartzeko?

Donostian, 2024ko maiatzaren 10ean

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Izar Hernando eta Cristina Lagé andreek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Eta bestelako aztergairik ez dagoela, batzordeburuak goiburuan adierazitako eguneko goizeko bederatzia eta hogeita hamabitan bilkura amaitutzat jo du; eta NIK, idazkari gisa, horren guztiaren FEDE EMATEN DUT.

O.E./Vº Bº
BATZORDEBURUA / LA PRESIDENTA

Cristina Lagé Manich

que sería positivo que los agentes de juventud de la ciudad (en el caso del Plan de Juventud) y las feministas y/o agentes que trabajan en temas concernientes a las mujeres (en el caso del Plan de Igualdad), así como los grupos políticos que formamos parte del Ayuntamiento, participáramos tanto en el ejercicio de valoración, como, sobre todo, en el diseño de los planes para los próximos años.

En virtud de ello, la concejala abajo firmante formula las siguientes preguntas:

- ¿Qué plazos y pasos se han diseñado para realizar la valoración del Plan de Juventud y del Plan de Igualdad? ¿Quiénes participarán en la realización de dicha valoración? ¿En qué espacios se compartirá la valoración de los planes?
- ¿Qué plazos y pasos se han previsto para el diseño del próximo Plan de Juventud y del Plan de Igualdad? ¿Algún agente externo dinamizará estos procesos? En caso afirmativo, ¿qué agentes? ¿Qué foro se va a abrir para que los agentes de la ciudad puedan presentar sus aportaciones? ¿Qué oportunidades tendremos los grupos políticos que formamos parte del Ayuntamiento para participar en el proceso de diseño?

San Sebastián, 10 de mayo de 2024

Izar Hernando Ibero
Concejal del grupo municipal EH Bildu”.

Intervienen las Sras. Hernando Ibero y Lagé Manich, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

Y no habiendo más asuntos, la presidenta declara terminada la sesión a las nueve horas y treinta y dos minutos de la fecha expresada en el encabezamiento; de todo lo cual, YO, LA SECRETARIA, DOY FE.